ASTARLOA KULTURGINTZA
DURANGOKO UDALA

durango

DURANGO
Udala · Ayuntamiento

2024ko otsailaren 11a · 11 de febrero del 2024

**LEHENDAKARIA ·** Presidente
Paule Sanchez Arieta-Araunabeña(EAJ/PNV)

**BATZARKIDEAK ·** Asistentes
Arantza Barrenetxea Arruti (EAJ/PNV)
Asier Perugorria Garcia (EAJ/PNV)
Carlos David Garcia Fernandez (PP)
Sheila Gonzalez (DES-SVD)
Nagore Lozano Zarandona (EHBildu-Durango)
Martin Loizate Sarrionandia (EHBildu-Durango)
Ima Garrastatxu Urbaneja (EHBildu-Durango)
Jorge Varela Dorrio (HE-ID)

**BERTARATU EZ DIRENAK ·** Justifica ausencia
Juan Antonio Bueno Moreno (EHBildu-Durango)

**GONBIDATUAK** – INVITADOS

**KUDEATZAILEA ·** Gerente
Asier Bikandi

**PRESIDENTEAK BERAK GONBIDATUTA · INVITADO/A A INSTANCIAS DEL PRESIDENTE**
Arantza Arrazola, San Agustin Kultur Guneko arduraduna/ Responsable de SAKG
Estibaliz Albizu, Bibliotekako arduraduna/ Responsable de Biblioteca

**IDAZKARIA** · Joana Rezola, Administrativa de Astarloa Kulturgintza/ko Administraria

| | |
|---|---|
| Tokia · Lugar: | Batzar Gela |
| Izaera · Naturaleza: | Ohikoa · Ordinaria |
| Hasiera ordua · Hora de inicio: | 17:00 |
| Amaiera ordua · Hora Final: | 17:45 |

BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO BATZARREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.

Guztiak ados daude aktarekin, beraz, onartutzat ematen da.

UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR.

Todos están de acuerdo con el acta, por lo que se da por aprobada.

BI.-PRESIDENTEAREN ZENBAIT EBAZPENEI BURUZKO KONTU EMATEA.

Batzarrerako deialdiarekin batera, urrian Presidenteak sinatutako ebazpen guztiak jasotzen dituen dokumentu bat bidali da.

Paule Sanchez Arieta-Araunabeña andereak galdetzen du ea norbaitek zerbait esateko duen ebazpenen inguruan, eta inork ez duenez ezer esateko, hurrengo puntura pasatzen da.

DOS.- DACION DE CUENTAS DE VARIAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENCIA.

Junto con la convocatoria de la reunión, se ha enviado un documento con todas las resoluciones firmadas por la Presidencia en el mes de octubre.

Doña Paule Sanchez Arieta-Araunabeña pregunta si alguien tiene algo para decir sobre las resoluciones, y como nadie tiene nada para decir, pasa al siguiente punto.

HIRU.- KUDEAKETA TXOSTENA

Paule Sanchez Arieta-Araunabeña andereak dio, kudeaketa txostena deialdiarekin batera bidali zela. Eta galdetzen du ea norbait horren inguruan zerbait duen esateko.

Ima Garrastatxu Urbaneja andereak esaten du oso interesgarria dela datuak kudeaketa txostenean ikustea, eta datu horiek konklusioak ateratzeko balio dutela. Eskatzen du, posible bada, adibidez, bibliotekako datuetan, bereiztea zenbat ekintza egiten diren euskeraz eta zenbat erderaz. Horrez gain, liburuen erosketetan ondo egongo litzateke jakitea zenbat erosten diren euskeraz eta zenbat gazteleraz. San Agustinen kasuan berdin, ondo egongo litzateke jakitea zenbat programatzen den euskeraz eta zenbat gazteleraz. Datuak horiek gehituta orain arte ditugun datuei, jakin dezakegu hizkuntza bakoitzeko ekintzetan zenbateko asistentzia egoten den. Eta berdina Museoarekin.

Esti Albizu andereak eta Arantza Arrazola andereak diote ez dagoela arazorik datu horiek gehitzeko.

TRES.- INFORME DE GESTIÓN

Doña Paule Sanchez Arieta-Araunabeña dice que el informe de gestión se envió junto con la convocatoria. Y pregunta a ver si alguien tiene algo para decir al respecto.

Doña Ima Garrastatxu Urbaneja dice que es muy interesante ver los datos en el informe de gestión, y que esos datos sirven para sacar conclusiones. Y pide, si es posible, que por ejemplo, en los datos de la biblioteca, aparezca cuantas actividades se hacen en euskera y cuantas en castellano. Además, en la compra de libros, también estaría bien tener el dato de cuantos libros se compran en euskera y cuantos en castellano. En el caso de San Agustin lo mismo, estaría bien poder ver cuanto se programa en euskera y cuanto en castellano. Sumando esos datos a los que ya teníamos hasta ahora, podremos ver que asistencias hay en las actividades de cada lengua. Y lo mismo con el Museo.

Doña Esti Albizu y Doña Arantza Arrazola dicen que no hay ningún problema para añadir esos datos.

LAU.- INTERESKO GAIEN BERRI EMATEA

Paule Sanchez Arieta-Araunabeña andereak dio, Esti Albizuri hitza ematen dio.

Esti Albizu andereak dio, ekintza berri bat dagoela “LAB egunak” izenekoa. Bibliotekaren filosofiari jarraituz, eta ulertuta biblioteka dela liburuez aparte, ezagutzak partekatzeko espazio bat.

CUATRO.- INFORMAR SOBRE TEMAS DE INTERÉS

Doña Paule Sánchez Arieta-Araunabeña le da la palabra a Esti.

Doña Esti Albizu dice que, en la biblioteca hay una nueva actividad que se llama “LAB egunak”. Siguiendo a la filosofía de la biblioteca, y entendiendo el espacio de la biblioteca, dejando los

Biblioteka horrela aurkeztu nahi izan dugu, ekintza honen bitartez. Otsailean hasi ginen, eta ekainerarte izango da, hilabete bakoitzeko lehenengo ostegunean, bigarren solairuko ekintzen aretoan. Aretoa moldatu eta sortzaileen espazio bat sortu dugu egun horietan. Bertan, txoko ezberdinak antolatzen dira, eta espazio horretan tresna edo lanabes ezberdinak ahalbidetzen dira. Adibidez, 3D inprimagailu bat daukagu, laser makina bat, ordenagailuak, plastilina, autoediziorako txoko bat… Adin guztietako jendea hurbiltzea nahi dugu, eta nolabait, etortzen denak, bai ezagutzak jasotzeko baita emateko espazio bat edukitzea. Ostegunean lehenengo saioa egin genuen, jendea asko etorri zen, eta adin oso ezberdinetakoak. Adibidez, gizon jubilatu bat etorri zen, elektrizista izandakoa, eta informatikaren inguruan ikasi nahi du, baina era berean elektrizitatearen inguruan dakiena erakutsi nahi du. Hiru ingeniaritza ikasle egon ziren ere bai, eta martxoko saioan lantegi bat emango dute. Jendeak eskatzen duenaren arabera ere, lantegiak antolatzen joango gara. Esan daiteke, proiektu hau, printzipioz, esperimentu bat dela, izan ere, hiri handietan egiten da, eta Durangon proba egin nahi izan dugu.

Nagore Lozano Zarandona andereak dio oso interesgarria iruditzen zaiola proiektua. Eta galdetzen du ea norena den laser makina eta 3D inpresora?

Esti Albizu andereak dio bitartekaria Diana Franco dela. Durangarra da, baina berak Tabakaleran martxan jarri du espazio sortzaile hau, baita Bilbon ere. Makinak bere bitartez lortu ditugu. Lehenengo saiora etorri zen gurpildun aulki batean doan bibliotekako erabiltzailea, eta bere gurpildun aulkiaren pieza bat apurtu zitzaion, eta 3D inpresora horren bitartez egin ahal izan zuen.

Ima Garrastatxuk galdetzen du ea noiztik dagoen proiektu honen ideia bueltaka.

libros aparte, como un espacio para compartir conocimientos. Hemos querido presentar así la biblioteca a través de esta actividad. Empezamos en febrero, y estará hasta junio., el primer jueves de cada mes, en la sala de actividades del segundo piso. Hemos adaptado la sala y durante esos días lo convertiremos en un espacio de creación. Allí, se organizarán diferentes espacios, y en esos espacios se podrán a disposición de los participantes los materiales y herramientas necesarios. Por ejemplo, tenemos una impresora 3D, una máquina de láser, ordenadores, plastilina, una zona para la autoedición… Queremos que se acerquen personas de todas las edades, y que de alguna forma, aquel que venga, tenga un espacio tanto para recibir nuevos conocimientos, como para compartir aquellos conocimientos con los que cuenta. El jueves pasado fue la primera sesión, y vino mucha gente, y de edades muy diferentes. Por ejemplo, vino un hombre jubilado, que había sido electricista, y quería aprender sobre informática, pero a su vez, quería enseñar sus conocimientos sobre electricidad. También vinieron tres estudiantes de ingeniería, que en el mes de marzo harán un taller. Iremos creando talleres a medida que vemos las necesidades de la gente. Se puede decir que, este proyecto, en principio, es un experimento. Se está realizando en ciudades grandes como en Bilbo o Donosti, pero en Durango también queremos probarlo.

Doña Nagore Lozano Zarandona dice que le parece un proyecto muy interesante. Y pregunta a ver de quién es la máquina de láser y la impresora 3D?

Doña Esti Albizu dice que la mediadora es Diana Franco. Ella es duranguesa, pero es quien ha puesto este proyecto en marcha en la Tabakalera y en Bilbao. Las máquinas las hemos conseguido a través de ella. En la primera sesión por ejemplo, vino una usuaria de la biblioteca que va en silla de ruedas, que se le había roto una pieza de la silla de ruedas, y pudo hacer la pieza con la impresora 3D.

Doña Ima Garrastatxu pregunta a ver desde cuando se le está dando vueltas a la idea de este proyecto.

Esti Albizu andereak dio, bere buruan, urteak daramatzala. Proiektua prestatzen hasi ginen aurreko urteko azken hiru hilabeteetan.

Ima Garrastatxuk dio, harrituta dagoela, izan ere, horrelako proiektu interesa bat egonda, batzordeko kideak enteratzen dira behin proiektua hasita dagoenean.

Esti Albizu andereak dio, berez, otsaileko batzordean, urtarrileko datuek eman behar direla, eta otsailean egingo dena azaldu. Baina kasualitatez, proiektu hau lehenengo ostegunean izan zenez, hasita dago dagoeneko. Baina hala ere, normalean proiektuak ez direla batzordean azaltzen prestatzen ari direnean, baizik eta hasteko prest daudenean. Baina bueno, planteatu daiteke, proiektuak, zarratu bezain laster hemen azaltzea.

Paule Sanchez Arieta-Araunabeña andereak hitza ematen dio Arantza Arrazola andereari.

Arantza Arrazola andereak dio, gaur, apirilean ospatuko den Tontolapiko Eguna aurkeztera datorrela. Tontolapiko Eguna jaialdi batean bihurtu dela esan daiteke. Eta Euskal Herri mailan interesa sortzea nahi badugu, ezin ditugu ekarri beste herrialdeetan egon diren ikuskizunak. Hau da, zerbait berezia eta ezberdina ekarri behar da. Aurten laugarren edizioa izango da.

Arantza Arrazola andereak dio lehenengo planoa aurkeztuko duela, izan ere, aurten aldaketak egon dira Musika Eskola obretan dagoelako. Plateruena aurrean eszenatoki bat egongo da eta bi ikuskizun egingo dira. Foodtruck bat jarriko dugu inguru horretan, eta informazio puntu bat. Horrez gain, Landako Guneko 3. Moduloaren sarreran tarima bat jarriko da, eta animadore batzuk egongo dira bertan.

Ikuskizun potenteei dagokionez, B.O.B.A.S. izeneko ikuskizun bat ekarriko dugu, eta hori Landako Gune eta Plateruena artean dauden lorategietako baten egingo da, zulo bat egin behar dutelako lurrean. Ikuskizun honek sari asko ditu, eta Valentziatik datoz.

Doña Esti Albizu dice que, en su cabeza lleva años dando vueltas. Pero empezamos a preparar el proyecto el último trimestre del año pasado.

Doña Ima Garrastatxu dice que está sorprendida, porque, habiendo un proyecto tan interesante, los miembros de la junta se enteran una vez que el proyecto está empezado.

Doña Esti Albizu dice que, en sí, en la reunión de febrero se dan los datos de lo realizado en el mes de enero, y se explica lo que se hará en febrero. Pero casualidad, este proyecto se puso en marcha en la primera semana de febrero, pues ya está empezado. Aun así, no solemos contar los proyectos en la Junta cuando los estamos preparando, sino cuando están listos para empezar. Pero podría plantearse explicar cada proyecto en cuando lo cerramos.

Doña Paule Sánchez Arieta-Araunabeña le da la palabra a Arantza Arrazola.

Doña Arantza Arrazola dice que hoy viene a presentar el Tontolapiko Eguna que se hará en abril. Se puede decir que el “Tontolapiko Eguna” se ha convertido en un festival. Y para que genere interés a nivel de Euskadi, no podemos traer los espectáculos que podemos encontrar en los demás pueblos. Es decir, hay que traer algo especial y diferente. Este año haremos la cuarta edición.

Doña Arantza Arrazola dice que primero explicará el plano, ya que este año habrá cambios porque la Escuela de Música está de obras. Pondremos un escenario en frente de Plateruena. En esa zona pondremos un Foodtruck y un punto de información. Además en el la entrada del 3. Módulo de Landako Gunea pondremos una tarima en la que estarán unos animadores.

En cuanto al espectáculo más fuerte, traeremos un espectáculo que se llama B.O.B.A.S., y se hará en un jardín público que hay entre Plateruena y Landako Gunea, porque tienen que hacer un agujero en el suelo. Este espectáculo ha tenido muchos premios, y vienen desde Valencia.

Beste alde batetik, Landako Guneko Parking-ean ikuskizun bat egingo dugu ere. Bertan, Karrikakoak egongo dira, baina ez dute antzerki bat egingo. 20 minutuko paseak egingo dituzte, publiko talde txikiak sartuz. Publikoa ate batetik sartuko da, eszena batzuk ikusiko dituzte, eta beste ate batetik aterako dira.

Por otra parte, en el Parking de Landako Gunea también se hará un espectáculo. Allí, estará Karrika, pero no van a hacer un teatro. Serán pases de 20 minutos, metiendo grupos pequeños de público. El público entrará por una puerta, verá unas escenas, y saldrá por la otra puerta.

Eguneko azken orduan, Plateruena barruan egingo da Ulalala izeneko ikuskizun bat, Kataluniako talde batena.

Y a última hora del día, dentro de Plateruena, habrá un espectáculo que se llama Ulalala, de un grupo Catalán.

Tontolapiko eguna astesantuko ostiralean ospatuko da.

El “Tontolapiko eguna” se celebrará el viernes de semana santa.

BOST._ GALDERAK ETA ESKAKIZUNAK

CINCO._ RUEGOS Y PREGUNTAS

Ima Garrastatxu andereak dio, ikusi dutela Plateruenan ostegunean Fermin Muguruzaren kontzertua egongo dela, eta prentsan atera denez Udalak horretan parte hartzen duela, jakin nahi du zelan hartzen duen parte. Ea hitzarmenen bat dagoen.

Doña Ima Garrastatxu dice que han visto que el jueves habrá un concierto de Fermin Muguruza en Plateruena, y como en la prensa ha salido que el Ayuntamiento participa en el evento, quiere saber en qué forma participa. A ver si hay algún convenio.

Asier Bikandik dio ez dakiela. Uste duela lotuta dagoela 40 Minutu Rock ekitaldiarekin.

Don Asier Bikandi dice que no sabe. Que cree que está relacionado con 40 Minutu Rock.

Ima Garrastatxu andereak dio, jakinda kontzertua Plateruenan egingo dela, eta Plateruena Astarloa Kulturgintzaren parte dela, norbaitek, politikoki edo teknikoki, jakin beharko du zelan egin den.

Doña Ima Garrastatxu dice que, sabiendo que el concierto será en Plateruena, y que Plateruena es parte de Astarloa Kulturgintza, alguien, a nivel político o técnino, tendrá que saber cómo se ha hecho.

Asier Bikandi jaunak dio ez dagoela hitzarmenik. Espazioa alokatu egin da kontzertu hori emateko, prezio publikoak aplikatuz.

Don Asier Bikandi dice que no hay ningún convenio. Que el espacio se ha alquilado, aplicando los precios públicos.

Ima Garrastatxu andereak dio orduan Udalak ez duela parte hartzen, prentsan esan den bezala.

Doña Ima Garrastatxu dice que entonces el Ayuntamiento no participa tal y como se ha dicho en la prensa.

Paule Sanchez Arieta-Araunabeña andereak dio Astarloa Kulturgintzak ez duela parte hartu. Eta dagozkion azalpenak eskatuko ditu, jakiteko ea Udalak hor parte hartu duen.

Doña Paule Sanchez Arieta-Araunabeña dice que Astarloa Kulturgintza no participa. Y que pedirá explicaciones para aclarar si el Ayuntamiento ha participado de alguna forma.

Martin Loizate Sarrionandia jaunak dio aurreko batzarrean eskatu zuela espazio publikoen zerrenda bat, alokatzeko baldintza guztiekin.

Don Martin Loizate Sarrionandia dice que en la anterior reunión pidió un listado de los espacios públicos con todas las condiciones para su alquiler.

Paule Sanchez Arieta-Araunabeña andereak dio bulego teknikoari eskatu zaizkiola datu guztiak, eta prest daudenean partekatuko ditugu.

Eta aztertzeko gai gehiago ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera ematen dio batzarrari eta, nik, batzordeko idazkaria naizen honek, akta jaso eta egiaztatu egiten dut.

Doña Paule Sanchez Arieta-Araunabeña dice que se le han solicitado datos a la oficina técnica, y cuando estén listos se compartirán.

No habiendo más asuntos que tratar, el Presidente da por finalizada la sesión, levantándose la presente acta de todo lo cual yo, como Secretaria de la Comisión doy fe.